

Euskera idatziaren batasuna

EZ! SASI - LETRADUEI

Gaur egun, euskal idazleok, gehien gehienok gara sasi-letraduak. Sasi-letraduak izan dira munduko idazlerik andienak bere, literatura lantze kontuan. Baina idazleok, toki guztietan jarraitzen dabe izkuntzalarien kontseilua* eta eurak autaturiko* normak. Gurean, ezin geinke bestera jokatu.

Gaurko bizitzeak, joan-etorrietarako dituan aukera errazekin*, erriak alkarrengana lehen baino gehiago urbiltzen* ditu. Gaur, edonor eta edonoiz gagoz Donostian nahiz Bilbon, zein Baionan zein Iruñan. Eta honek, euskalkien forma estuetatik urten-beharra eskatzen deusku.

Honetaz gazteak errazago ulertzen dabe, zaharrak beti lehengo mutu ereari lotuago dagozalako. Ta ba da beste fenomeno bat bere: Espainiako nahiz Frantziako edozein Unibersidadetan nahasturik aurkitzen dirala probintzia guztietako estudianteak, gaur inoiz baino gehiago euskerearekin arduratzen diranak eta anitz* euskeraz ikasten edo euske-rea obeto orniduten edo sakontzen ari* diranak. Honeek be batasun eske ari jakuz, euren arteko artuemonetarako eta ikastaroetarako hain beharrezkoa iruditzen jakelako. Beraz*, nok ukatu leike, inoiz baino batasunaren premina andiagoan aurkitzen gareana?

Beharrian horreek ikusirik, 1964-tik iru aldiz egin dira deiak, batasunari buruz bilera* nagusiak egiteko. Baionan, 1964-an, "Euskal Idazkaritza"-ren deira; eta Ermuan (Bizkaia), 1968-an, "Gerediaga" alkartearen deira. Geroago, ezin bestean, derrigorturik bezala*, Euskaltzaindiak deitu zituan Arantzazura, 1968-ko urritlean, idazle, irakasle eta euskaltzaleak, erarik orokorrean*. Iru bilera nagusiotan joera bardineko eritxiak nagusitu ziran; eta jarraitu beharra dabe, bene-benetan batasuna nahi dabenak. Bestela, guzurrezkoa da batasun horren nahia.

Euren eritxiak agertzeko eta defenditzeko aukerea izan dabe. Egia! ondo biribildu eta eusteko gauza ez baziran, joanak joan. Begoz isilik.

Arantzazura arte, idazle asko ginan noraezean. Baina han argi ikusi zan, gure izkuntzalari andia dan Mitxelenak ze bide proposatzen euskun.

Gaur egun, zientzia gailen* dan garai honetan, gaixorik gagozanean midikuagana joaten garean garaian, eta ez sasi-midikuagana (enplasterugana), normalena da letraduari jaramon egitea, eta ez sasi-letraduari. Uts egiteko arrisku gutxiago baitogu*.

Gainera, Mitxelenak hainbeste izkuntza eta izkuntzaz dakianez eta euskerearen euskalkiak beste inok ez bestean ezagutzen dituan, nor gara gu, bere esanei ez jarraitzeko? Euskaltzaindiak ez eban alferrik izentatu, batasunaren proposizinoa egin behar eban-batzordearen buru. Eta batasuna hain beharrezkoa ikusten dogunok, Mitxelena bere proposamentuetan beste bide batetik abiatu balitz bere, guk händixek jarraituko geuntsan.

Jakina —eta hau Mitxelenak berak alde z aurretik esan eban— batasunak dakarskun guztia danoi gogoko izatea ez zala posible. Batzuentzat ondo zana, besteentzat ez; eta eritxi batzuetan bat etozanak, besteetan ez. Baina, era orokorrean* donontzat egokiena izango zan-bidetik jo behar zala.

Zenbait* gauzaren artean, neuri bere ez jat gogoko H letrea (eta hau izan zan Arantzazun oztoporik andiena, guzurra badirudi bere; ze letra bat gora-behera, ez da hainbeste ardura euskerearen batasunerako). Baina, gaur, batasuna behar-beharrezkoa dogula, ez daukat zalantzarik*. Eta batasunaren alde artu beharra dot euskera idatzia lehengo mendeetatik* erabili dauan letra hori. Hainbat gehiago, gaur batasunaren sinbolu bat bezala* alztatu dalarik.

H nahi ez dabenak, gaixtasuna jotan dabe arrazoitzat; eta erabilten asi gareanok argi ikusten dogu, geroago eta argiago noski*, H ondo erabiltea ez dala hain gauza gatxa, gehien gehienetan erregela jakinak ditualako eta maiz* berbak zehatzago bereizten* laguntzen deuskulako.

Beraz*, kontu honeetan, ez! sasi-letraduei.

Eta gehienok sasi-letraduak gareanez, amore* emon daigun letraduen aurrean. Gomuta gaitzean Bruegel-en kua-dru haretaz: *Itsuen parabola*. Eta libra gaitzean, *itsuak* itsua gidari artuta, amiltegian* jaustetik. Horregaitik dinot: Ezetza sasi-letraduei!

JUAN SAN MARTIN